

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 135/2024 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren bidez (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 eta apirilaren 13ko 14/2021 foru dekretuen bidez aldatua), mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuan badagoela partida bat laguntza lerro honetarako, onespina ematen zaio 2024ko deialdiari, eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzen da.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onspina ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2024ko deialdiari, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuan xedatutakoak arautuko baitu (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 eta apirilaren 13ko 14/2021 foru dekretuen bidez aldatu zen foru dekretu hori), xehetasun hauen arabera:

– Eskerak aurkezteko epea: ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko apirilaren 30era arte, biak barne.

– Eskerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoaren bidez <https://egoitza.araba.eus/es/-/ayuda-para-mantenimiento-y-conservacion-de-vinedos-viejos>, pertsona juridikoei, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten iza-pideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzen dutenek.

– Kreditu erreserba: 349.736,94 euro Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastu aurrekontuaren 40104. G/419401/77000402 "Mahasti zaharrak mantentzeko plana" partidaren kontura. Dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioerengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntza-
ren bidez ere.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2024ko deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

– 19/2020 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako betekizunak eskaerak aurkezteko epea hasten den egunari dagozkiola joko da.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko titularrari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdia garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA